## EL EVE REALIZARÁ UN PLAN DE ACTUACIÓN EN LASARTE-ORIA

El Ayuntamiento ha firmado un convenio con el Ente Vasco de la Energía

LASARTE-ORIA. Con el objetivo de la colaboración entre ambas partes para promocionar el uso racional de la energía y el aprovechamiento de las fuentes renovables, el Ayuntamiento de Lasarte-Oria ha firmado un convenio con el EVE (Ente Vasco de Energía). Según el primer teniente de alcalde Iñaki Múgica. "El Ayuntamiento debe dar ejemplo y, para ello, damos inicio a un programa que contribuirá al control del consumo energético y a la reducción del impacto medioambiental derivado de la transformación, transporte y utilización de la energía".

El convenio entre el Ayuntamiento de Lasarte-Oria y el EVE instrumentará un sistema de colaboración entre ambas partes, para lo que se plantean las siguientes bases: facilitar e intercambiar mutuamente la información técnica, económica y social de interés para los fines propuestos y promover conjuntamente las acciones que se consideren convenientes para favorecer los intereses del municipio en coherencia con los principios inspiradores de la política energética. El objetivo final es la realización de un plan de actuación municipal. El EVE elaborará un informe preliminar con las posibles acciones a desarrollar en el municipio en materia de eficiencia energética y de energías renovables. >A.H.

### LASARTE-ORIA > Fin de semana de Carnaval con comparsas y baile en el municipio

Los aficionados a la fiesta de Carnaval podrán disfrutar de varias actividades durante este fin de semana. Hoy a las 16.00 horas saldrá la Zabaletako Konpartsa, que empezando desde el barrio Zabaleta recorrerá las principales calles del municipio. A las 18.00 horas llegará el turno de la comparsa del Centro Cívico de la Mujer, que hará su salida desde el propio centro. A partir de las 23.00 horas habrá baile en la cafetería de la casa de cultura Manuel Lekuona. La entrada será gratuita pero para las consumiciones habrá que adquirir un vale. >A.H.

### ASTIGARRAGA > Campeonato de Euskadi de Sokatira en el polideportivo

Hoy, a las 17.00 horas, se va a disputar en el polideportivo municipal de Astigarraga el Campeonato de Euskadi de Sokatira. Será en superficie de goma en la categoría senior masculino de más de 640 kilos. En la disputa estará presente el equipo de sokatira de Perurena, Auzolan, junto a estos otros equipos: Kuartango Arana, Abadiño A, Abadiño B, Arriskuzubi, Altamira, Gatika y Berriozar. La final se jugará el próximo 4 de marzo en Arrigorriaga. >A.H.

# Hernanik 22.000 metro karratuko SagardoGunea izango du laster

**MARTXOAREN 5EAN** AURKEZTUKO DA EGITASMOA

Enpresarien eta kalitate kontseiluaren egoitzak bilduko ditu, alde publikoarekin batera



Irudian, Ave Maria etxea eta bere ingurua, Hernaniko SagardoGunea hartuko duena. ARGAZKIA: A.H.

**AINARA HERNANDO**

HERNANI. Historikoki sagarraren eta sagardoaren munduari lotuta egon den udalerria izanda, edari hori ardatz duen gune bat izatea egoki ikusi zuen Hernaniko Udalak. 2004an eman zituen proiektuaren lehen pausoak eta, azkenik, martxoaren 5ean jendaurrean aurkeztuko da lehenengoz Hernaniko SagardoGunearen egitasmoa. Goizeko 11.30ean izango da Chillida Lekuko auditorioan.

Herriaren erdigunean dagoen Ave Maria etxean eta parkean kokatuta egongo da, 22.000 metro karratuko gunean. Etxeak Gipuzkoako Sagardo Naturalaren Enpresarien Elkartearentzako eta kalitatearen kontseilu arautzailearentzako egoitzak hartuko ditu. Egingo den eraikin berri batean, berriz, alderdi publikoagoko guneak kokatuko dira, besteak beste, museoa, liburutegia, ekitaldietarako aretoa,...

Klaustro tradizionalaren moduko eskemaren inguruan antolatuko den gunea izango da: patioa edukiko du, eta horren erdian, parterre borobil batean, mota ezberdinetako sagarrondoak landatuko dira.

**Museoa, liburutegia eta ekitaldietarako aretoa izango ditu Ave Maria etxe inguruan egingo den guneak**

Esan bezala, Hernaniko Udala 2004 urte hasieratik ari da proiektuarekin lanean, orduan erabaki baitzen Ave Maria etxea SagardoGune bihurtzea. Urte bereko maiatzean Gipuzkoako Sagardo Naturalaren Enpresarien Elkartera jo zuten egitasmoaren edukiak diseinatzeko lankidetza bila.

Urte eta erdiz aritu ziren elkarlanean, eta 2005eko abenduan SagardoGunearen egitasmoa aurkeztu zitzaion Fraisoro Eskolan aipatutako elkartearen batzarrari. Sagardogile gehienek begi onez ikusi zuten eta beren laguntza berretsi ere bai.

Egitasmoa Foru Aldundiari aurkeztu dio Udalak dagoeneko, eta martxoaren 22an gauza bera egingo du Eusko Jaurlaritzarekin.

Hernanik sagarraren eta sagardoaren inguruan burutzen dituen egitasmoez gain, gaia bultzatzen Chillida familiak duen inplikazioa azpimarratu du Udalak: "Hori dela eta, martxoaren 5ean bere Sagardo Eguna izango du Hernanik Chillida Lekuko auditorioan. Ave Maria etxea bezalako gune pribilegiatu batean egingo den sagarrondo landaketaren hasiera ekitaldia izango da". Ave Mariaren inguruek sagarrondoak izan zituzten mende askotan, eta, egun, "arte modernoa eta artisauen produkzioa batu nahi ditu gune berean".

Udaleko ordezkarien iritziz, "Chillida Lekurekin eta Kasko historikoarekin batera, Hernaniren erakargarritasuna gehituko du SagardoGuneak, eta ez hori bakarrik, Buruntzaldea osorako leku erakargarria izango baita".

## Sagarraren kulturari lotutako udalerria

Gipuzkoako lehen postuan dago Hernani sagardorako sagarrondo kopuruari dagokienez. Hamaika upeltegi daude momentu honetan udalerrian. Hala ere, oraindik ere garrantzitsuagotzat jotzen duen alderdi bat azpimarratu dute Udaletik: "Sagardoak duen garrantzia historikoa eta herriko ekonomian duen pisuaz gain, azpimarragarriagoa den beste alderdi bat dagoela iruditzen zaigu, sektoreak Hernanirentzako duen garrantziaren erakusgarri. Herriko kultur eta gizarte eragile ezberdinek gaiarekin duten inplikazio handia da hori". Beren iritziz, "ez da Gipuzkoan herririk horrelako jarduera produktibo baten aurrean hemen dagoen adostasun soziala lortu duenik". Inplikazio horrek Hernaniko bizimoduko alor guztietara iristarazten du sagardoaren gaia. *Hernani eta Sagardoa* lelopean, programa berritzaile bat jarri dute martxan eskoletan. Horren bidez, herriko haurrei produktuak duen garrantzia erakusten saiatu dira modu didaktikoan. Helduenen artean, kontsumo arduratsua ere izan dute hizpide. Beste arlo batean aurkitzen da Txotx Batzordea, ostalariak, sagardogileak, Kaskoko bizilagunak eta Udala biltzen dituena. >A.H.





